¡ZER PAKEA![1]

«Qué descansada vida
La del que huye el mundanal ruido»
(FR. LUIS DE LEÓN)

¿Non da baster sokoa,
Bart ames eindakoa,
Munduko diar[2] ta garrasirik aiture gabe
An egoteko pake-pakean ondo gizona?
¡A! Ta ¡zer gauza ona
(Urizalentzat erri andiak aparte utzirik)
Dan egotea bakartadean isill-isillik,
Pozez begira mendi-zelaien alaitasuna,
Lorez ta orriz nola jantziak
Dauden arbolak, ta zeñ garbiak
Mur-mur gozoan beti dabiltzan errekachoak!

¡Emen dagon pakea!
Gaztaña arbola baten azpian nago jarririk,
Bere kerizpe maitagarriaz inguraturik:
Ara non dagon nik opa nuan bakartadea.
Dakust, or beian, ibar zabala
Arto ta gariz eder jantzia,
Aurrean daukat baso itzala
Aritz arbolaz oso betia,
Nagon lekuan, gaztañadia;

(1) Composición premiada con *un objeto de arte* en los Juegos florales celebrados en esta ciudad en 1894.
(2) Contracción de *diadar*

Berachoago, inchaur-pagoak;
Belar berdean, marrubi gorri gozo gozoak,
Aldamenean, sagarren lorak;
Chori kantariz beteta arbolak;
Lore pollitak nere inguruan,
T'intza biribill beren kolkuan.
Maitea[1] baño Sortitza[2] dala zenbat obea!
¿Eta nola ez, gizonak egin badu manea?
Eta sortitzak ¡Jauna ber-bera badu Egillea!
Gauza guzia dakust paketsu, isill osoan...
Bakarrik dantzut arbisk[3] burrunba nere alboan,
Aize biguna jostakaria arbol ostroan,
Ta zinzerri bat *dilin dolonga* urrutichoan.
Errayetatik sentitzen da emen bizitz'berria,
Biotza samur, adiñ argia,
Arima-ariman damorri bigun maitagarria,
Ta Jaungoikoa bedeinkatzeko modu obia.
Munduko diar ta garrasirik ez det entzuten...
Pake osoan bizi liteke emen gizona.
¡A! Ta ¡zer gauza ona
(Urizalentzat erri andiak aparte utzirik)
Dan egotea bakartadean isill-isillik,
Pozez begira mendi-zelaien alaitasuna.
Lorez ta orriz nola jantziak
Dauden arbolak, ta zeñ garbiak
Mur-mur gozoan beti dabil tzan errekachoak!

DOMINGO AGIRRE-KOAK.

(1) El arte.
(2) Naturaleza.
(3) *Arbiska*- Insecto.
(4) *Adiña*-Entendimiento.